

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Ostatu hartu eta eman

NEGUAREN GORRIAREN ARINTZEN laguntzen duten azen hostoen jaten aritzen diren beldarren ostatu da kukulorea, *Lychnis flos-cuculi*. Udaberria eta uda kukulorearen hostoak janez biziko da, gero azarenei heltzeko. *Mamestra brassicae* izena du gaueko sits honek; aza, azalorea, bruselaza, aza gorria eta aza guztietan ostatu hartu eta jaten duelako da *brassicae*. Sits honen beldarrak udaberria igarotzeko kukuloreaz gain beste landare ostalari gehiago ere izaten du: tipula, kukubelarra, zerba, astamahats ale-beltza, ilena, kalamua, urre-lilia, kuiak eta kurkubiak, krabelina, eguzki-lorea, isipu-belarra, uraza, lihoa, tomatea, sagarrondo, tabako-belarra, ilarra, errefaua, arabarba, uztaoa, patata, ziazerba...

Ugaria da sitsak eta tximeletak biltzen dituen Lepidoptera familia, ehunka milaka espezie ditu baitan. Azaren sitsak bezala gehienek landareak dituzte ostalari, xalo-xalo apopilo hartu eta igartzetako bazka izango diren landareak. Familia honetan aipagarria da milaka espezie dituen *Coleophora* generoa. Lore, hazi

edo hostoak janez hazten dira beldarrak, eta ez edozein landarerenak, espezie askok landare zehatz eta bereziak behar dituzte. Hona *Coleophora* genero honeko dizuten beldarrak aurkitzeko egokiera emanago dizuten landare batzuk: asentsio-belarra, uso-belarra, urrezko makila, ihia, elorri beltza, garadaizka, zuhandorra, txorbeltza, gaukara, kukulorea, astakamamila edo zizare-belarra, otea, egilitsa, astalbahaka, amuntza, katu-belarra, oreganoa, zolda, hirustak, gardulatza, nabar-lorea, udazken mendabelarra, sabia, esparragoa, inurri-belarra, oilo-belarra, garikota, azeri-mahatsa, milorria, artemisia mina, milazka afrikarra, otondo-belarra, axarioa, asun-borta, zapartabelar zuria, Narbonako lihoa, azitraia, xiristola, piperbelarra, odolurra, ur-piperra, astapiperra, betibizi horia, isats arantzaduna, sabi hostozuria, sapelarra, izar-belar arrunta, ikara-hostoa, estrepa, loitosina, zarrantza, kukuso-belarra, zalkea, laharra, krabelina, olibo-zumea, ariketa, luzerna, itsabalkia eta abar luuuuuuuuuuuz bat.



Betor negua

Ilargialdi bat eskas negu besterik ez da gelditzen. Aurtien lehorretik badoa ere hotzak sueto jo du eta ganbara eta mandioetako erreserbetatik gustura tira da. Tira du zuenak... Hona negurako jaki onenetako bat: kuiak (*Cucurbita* spp). Makina bat moldetakoak badira. Luze eusteko argitasun gutxiko eta airea erraz berritzen den tokia da egokia. Lehorrean egotea ezinbes-

tekoa. Hala ere hemendik atzera, lehenaz gain, are eta gehiago usteltzea normala da. Azken urteetan Gipuzkoan ematen ari den gizarte-saltsa garrantzitsuenetako osatzen duten BasHerri edo baserritar eta kontsumitzaile ekologikoen elkarte baten ganbara da honoko hau. Otsaila bero negua gero, diogu eseran. Betor.